

Xabier Aranbarri (Kulturaz) Ixiar Garcia (Faktoria) Uxue Ruiz de Arkaute eta Raul Urkiza (IAK)



Proiektu euskaltzaileen izaera eta beharra amasgune diren eremuetan eta horietatik at 2025-03-26

PLAZA

Euskarazko kulturgintza ez da sormena bakarrik: sormen hori nola plazaratzen den ere bada. Horretaz aritu ziren Azpeitiko Kulturaz kooperatibako Xabier Aranbarri, Aiaraldeko Faktoriako Ixiar Garcia, eta Izaskun Arrue Kulturaguneko Uxue Ruiz de Arkaute eta Raul Urkiza. Euskaraz programatzearen irizpideez, euskal kulturaren erreferentziatzeko gunez, eta gune horien izaeraz eta izan beharreko harremanez jardun zuten. Kafe antzokiaren formula klasikotik abiatu eta beste pausu bat emateko gogoia sumatu genuen airean.

ZAZPI JAUZI

1. Euskara, euskararen kulturgintza edo euskarazko hedabideak daude era honetako proiektuen oinarrian. Garrantzitsua da abiapuntu hori garbi izatea. Hala ere, garapen bat jasan du horrek: izan ere, euskaraz bizitzeko, **bizitzaren esparru guztietan eragin behar da**. Izan daiteke feminismoa, elikadura burujabetza, kulturgintzaren transmisioa... **Garapen komunitarioa** bada helburu, gizarte eraldaketa helburu duten mugimenduek elkarrekin jardun behar dute.
2. Ai, sormena. Kulturgintza nola plazaratu bezain garrantzitsua da **sormenerako aukerak eta espazioak** erraztea. Euskara-kultura lotura gauzatzen badakigu, baina sortu nahi dutenei bultzada emateko bideak zein diren ez dugu gehiegi ikertu. Horri erantzun bat emateko sortu zen, adibidez, Azpeitiko Dinamo. Eta, adi: kultura ahotik ahora darabilgu, baina zergatik ez dugu "arte" hitza gehiagotan erabiltzen?
3. Aurrekoarekin lotuta, badirudi belaunaldi berriak sortzaileagoak direla. Edo beste modu batera ulertzen duela sormena: beti ohitu gara sortzaileak eszenarioan ikustera, eta beraingandik distantzia batera egotera. Orain, muga hori lausoagoa da. Eta horrek zuzenean garamatzara parte-hartze mekanismoetara: **kultura-kontsumitzaileak sortzea baino, kulturaren transmisioa (bi norabidetan) biziko dutenekin lan egitea interesgarriagoa da**.
4. Kulturgintzan eta kulturazaletasunean badago dinamika bat, baina belaunaldien arteko transmisioa bermatuta dago? **Begira eskola-kirolari: zergatik ez ditugu kulturgintza gazteenei transmititzeko era horretako bideak eta aukerak?** Sortu ondoren, hedatu eta azaldu egin behar da: kulturgintzaren ziklo osoa bete behar da. Gazteekin egin behar diren mediazio- eta sentsibilizazio-saioek kultur-proiektuek duten garrantzia bera dute.
5. Zein irizpide izan, euskarazko kultur-emanaldiak programatzerako orduan? Batetik, helburua ez da bakarrik publiko euskaldunari gauzak eskaintzea; **publiko berriak sortu behar ditugu**. Horregatik, garrantzitsua da orainarekin konektatzen duten emanaldiak programatzea. **Eta oreka ere garrantzitsua da:** guk nahi dugunaren eta publikoak edo bestelako eragileek eskatzen dutenaren artean dantzan ibili behar dugu.
6. Kultura erreferentetzat duten espazioetan, **bestelako eragileekin saretuta egotea ezinbestekoa da**. Beste proiektu batzuekin elkarlanean jarduteak programazioa aberasten du. Gaur egun ditugun harreman puntualetatik haratago, irizpideetan bat egin eta proiektu komunagoak amestea ere ez dago gaizki.
7. **Gazteak erakarri nahian pasatzen dugu bizitza. Hobe genuke, agian, geure buruari ere apur bat gehiago begiratzea**. Susmoak: Gehiegitxo profesionalizatu gara, dena eginda emateko joera izan dugu. Hori ez da erakargarria. Beraz: gazteen parte hartzea da jaisten ari dena, ala gu gara trakesten ari garenak? Belaunaldi berriei eskatzen diegu guk jokatzeko gure modura jokatzeko... eta hori ezin da egin.